

2116652 jarduera

Audioaren erreferentzia: JJ-75 Kaleidoskopioa

Mailak: B2-C1

Funtzioak: topikoei buruzko iritzia eman, azalpenak egin, pertsonen deskribapena egin

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*kaleidoskopio, topiko, klixer, euskaldun, basko, tripazain, indartsu, musugorri, ...*) -rena /-rena egin, -ra begira

Azken ekintza: Toki jakin bateko pertsonak deskribatu, topikoak eta errealitatea uztartuz.

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

.1 Euskaldunei buruzko topikoak



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelan audio-pasartea entzun aurretik partekatze jarduera:

[Jon eta Jone, besteak beste, euskaldunari buruzko topikoez arituko dira gaurko atalean.](#) [Ikasgelan partekatze gogoeta egingo dute, gaiari buruzko galderei erantzunda.](#)

- Nolako irudia daukate euskaldunei buruz Euskal Herritik kanpo?
- Zer da gehien gogaitzen zaituena irudi horretatik?
- Eta gehien gustatzen zaizuna?
- Pasadizorik izan al duzu euskaldun izatearekin lotuta?


2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarrizketako esaldietan aditz-molde egokiak kokatu

1- Entzun aurretik

1.2 Topikoak alderatzen



Ikaskidearekin  ariketako erantzunak komentatu eta alderatuko dituzte, zertan dauden ados eta zertan ez jaso eta (nahi izanez gero) taldean komentatzeko.

2- Entzun bitartean

2.1 Euskaldunez diote...



[Jon eta Jone euskaldunei buruz esaten direnak aipatu dituzte eta horiei buruz zer pentsatzen duten ere komentatu dute.](#) Entzun eta erantzun egokia aukeratu behar dute.

Zuzenketa:

Jonen lagun batek dio euskalduna dela:

- sabela elikatu baino lehen, bihotza elikatzea aukeratu duen herria
- burua elikatzeaz arduratu ordez, sabela elikatzea aukeratu duen herria
- sabela beteta burua elikatzen jakin duen herria

Telebistan eta zineman euskaldunaren irudia emateko:

- Euskaldunak ez direnek erabiltzen dituzten molde tipikoak erabiltzen dituzte
- Euskaldunek sarritan erabiltzen dituzten ohiko esamoldeak aukeratu dituzte
- Euskaldunaren benetako hizkera adierazten duten moldeak baliatu dituzte

Jonerentzat, topikoak dira:

- Herrialde baten irudia azaltzeko modu egokia

2116652 jarduera

- Jendearengana hurbiltzeko aitzakia
- Herri jakin baten irudia barregarri uzteko tresna penagarria

Euskaldunok geure buruz gehien saltzen dugun irudia, Jonen ustez

- sukaldariak, kirolariak eta historiaren zulo beltzean galtzen den herriarena
- euskaldun tripazainak eta musugorrien irudia
- kirolariak, borrokalariak eta leialtasunaren irudia

2.2 Azaldu zer diren

Elkarrizketa berriro entzungo dute eta beheko bi kontzeptu hauei buruz esandakoa beren hitzetan azaltzen saiatuko dira. Ondoren, taldean komentatu denen artean adosteko.

Zuzenketa:

1. Espainolak eta kaxeroak

Joneren eskola garaiko kontua: ikastolakoak kaxeroak ziren eta eskoletakoak, berriz, espainolak Jonen iritziz, euskaldunen irudia zabaltzeko eskoletakoena (espainiarrena) da, horregatik ikusten gaituzte “kaxero” gisa toki guztietan.

2. Kaleidoskopioaren metafora

Euskaldunen irudi bera behin eta berriro saltzen den bitartean, kaleidoskopioaren moduan, etengabe aldatzen (eta garatzen) doan herri bat dela pentsatzen dute.

3- Entzun ondoren

3.1 David de Jorge euskaldunei buruz

David de Jorge sukaldariak euskaldunei buruz esan ohi diren topikoez zer dioen irakurriko dute beheko testuan. Ikasleek, zerrendatu behar dituzte zein topiko aipatu dituen eta horietako bakoitzarekin ados dagoen ala ez adierazi, ondoan edo idatziz.

Adibidez,

David de Jorgeren ustez,

Euskaldun guztiak sukaldari onak dira

(...)



David de Jorge, 43 urte. Sukaldaria:

Hasteko, janariari buruzko topikoa egia da: bazkaltzen hasi garenetik hasten gara afarian pentsatzen. Gezurra da euskaldun guztiak sukaldari onak garela, gure sukaldeetan sukaldari penagarri asko dago-eta. Txortan egiten ez dugunarena, tira, tarteka. Itxiak garela? Segun eta norekin. Javier Clementeren antzerako jenio txarrekoak garenaren errua eguraldi txarrak dauka. Leialak garela diote; baita zera ere!

Ezjakin emozionalak omen gara... gainditzen ari garen zerbait da. Emakumeek agintzen dutela... eta eskerrak! Emakume euskaldunek Euskal Herritik kanpora larrutan



gehiago egiten dutenari buruz... nire emazteak, bederen, egia dela dio. Kanpotarrak ez ditugula atsegin ere esan ohi da; eta egia da, baldin eta ergelak, aspergarriak edota zakarrak badira: bizitzaz gozatzen dakien jende atsegina eta autoaren maletategia ardoz betea dakarrena, ordea, ongi etorria da.

2116652 jarduera




Azkenik, oso fededunak garela diotenentzat: begira, hemen Santa Txuleta eta Asisko Bisigu Deunean besterik ez dugu sinesten. Amen.

[XL Semanal](#) (Euskaratua)

3.2 Gainerakoak nolakoak dira?

  Ikasleek, aurreko testua eredutzat hartu, eta binaka, beste komunitateetako biztanleak (katalanak, galiziarak, andaluziarrak) nolakoak diren esan behar dute, haiei buruz esaten diren topikoak eta ezagutzen duten errealitatea uztartuz.

3.3 Topikoen zergatia

   Nahi izanez gero, gaien sakontzea proposatu daiteke taldean. Honelako zerbait izan daiteke abiapuntua ikasleek euren iritzia azaldu ditzaten:

- Batzuek uste dute jaioterriaren arabera nortasun ezberdinak ditugula, horregatik sortu dira topikoak. Zer uste duzu zuk? Ados zaude ala ba ote dago bestelako arrazoirik herrialde bati buruzko topikoak aireartzeko?

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Sekula ez

[Aukeratu molde egokiak elkarrizketako esaldietako hutsuneak betetzeko](#)

Kaleidoskopioa: **Sekula / sekula ez / inoiz** forma eta irudi berdin bat errepikatzen ez duen tramankulua Hementxe dauka zuloa, jarri **leihora / leihotik / leihoan** begira eta mugitu xuabe-xuabe **Nabari / ageri / ikusiko** da bai, Jainkoa eta Lege Zaharrak geneetan daramatzazula! Aizu, Jon etorri zaitetz gaur arratsalde **partean / partetik / partez** eta emaiozu zuk Nikori Horrela, nik afaria prestatzen dudan bitartean, **kanguruarena / kanguruarenean / kangururena** egingo duzu

Nire gurasoek **tripetatik / triparekin / tripetarako** konkistatu nahi zaituzte berriro

Nikori gustatu zaio kaleidoskopioa, ohera **eta guzti / gainera / guztiarekin** sartu du

Kaleidoskopio bat gara, beste edozein **herriren / herrian / herriko** modukoa, aldatzen eta garatzen doana

Aizu, ongi **ekarria / esanik ere / ekarriko** kaleidoskopioarena

TRANSKRIPZIOA

W- JON Bulegoan zaude?

W-JONE Bai

W- JON Memento bat pasa naiteke?

W- JONE Baina zertara etorri behar duzu bada?

W-JON Zuriñeri bi musu ematera

W-JONE (graziarik gabe) Ja ja ja ja

JONE Zer, eman al dizkiozu bi musuak Zuriñeri?

JON Bai, oso sinpatikoa (atsegina) da Zuriñe.

JONE Bai, Zurekin bai, seguru nago musu ematerakoan besotik heldu dizula.

JON Ba ez dakit.

JONE "Sinpatikoa" dagoenean hori egiten du, mutilekin bakarrik "klaro" (jakina)

JONE Eta zertara etorri zara?

JON Hau ekartzera... Nikorentzat da.

JONE Ui, eta zer da?

2116652 jarduera

- JON Kaleidoskopio bat, sekula forma eta irudi berdin bat errepikatzen ez duen tramankulua.
- JONE Eta nondik begiratu behar da?
- JON Hementxe dauka zuloa, jarri leihora begira eta mugitu xuabe-xuabe.
- JONE Ze polita, elizetako bidrierak (beirateriak) dirudite.
- JON Buff ... nabari da bai *Jaungoikoa (Jainkoa) eta lege zaharrak* geneetan daramatzazuela.
- JONE Aizu Jon, bada etorri zaitetz gaur arratsalde partean eta emaiozu zuk.
- JON Ez dut molestatu (traba egin) nahi, zuen zereginak izango dituzue.
- JONE Keba, etorri eta emaiozu zuk. Horrela nik afaria prestatzen dudan bitartean kanguroarena egingo duzu
- JON Bale, afaltzeko zerbait eramatea nahi duzu?
- JONE Ez lasai, atzo amak tuper piloa ekarri zuen.
- JON Aizu zure gurasoek ba al dakite gu.
- JONE Zergatik uste duzu ekarri zuela tupper piloa? Tripetatik konkistatu nahi zaituzte berriro.
- JONE Nikori gustatu zaio kaleidoskopioa, ohera eta guzti sartu du.
- JON Aizu Jone, lehen zure amarena eta tripena esan duzunean, lagun batek euskaldunez esaten zuenaz akordatu naiz.
- JONE Buf... edozer gauza izan daiteke.
- JON Burua elikatzea baino sabela elikatzea aukeratu duen herria garela zioen.
- JONE Esageratu samarra zure laguna.
- JON Bai eta begetarianoa, tipo triste samarra, baina oso argia.
- JONE Topikoen kontuak beti dira kutre samarrak.
- JON Joder ba egun telebista edo zinemara joatea besterik ez dago. Andaluz eta Euskaldunen moda puta hori.
- JONE Ia, bueno nik egia esan ez dut ez pelikula ez telesailik ikusi.
- JON "Kabenzotz", "Aiba la ostia"... euskaldunak ez diren baskoek erabiltzen dituzten esamolde pare bat bota eta Marianiko el Cortoren moduko pertsonaiak egiten dituzte.
- JONE Ni akordatzen naiz haurrak ginenean guretzat kolegioetakoak zuzenean espainolak zirela eta haientzat, gu, ikastoletakoak, kaxeroak.
- JON Ba dirudenez euskaldunon irudia esportatzeko aukeratuak izan direnak kolegioetako horiek dira eta gu "kaxero" gisa saldu gaituzte toki guztietan.
- JONE Bueno, baina beti izan da apur bat horrela ezta?
- JON Bai, eta bueno gure errua ere bada eh, guri ere gustatzen zaigulako euskaldun tripazain, indartsu eta musugorri ergelaren klitxe hori, besterik ez dugu saltzen sukaldariak, kirolariak eta historiaren zulo beltzean galtzen den herriaren matraka.
- JONE Ia eta gu ere kaleidoskopio bat gara, beste edozein herriren modukoa, aldatzen eta garatzen doana.
- JON Batzuetan gezurra badirudi ere... Aizu ongi ekarria kaleidoskopioarena.
- JONE Klaro, argi dago bikote honetan nor den burua elikatzen duena eta nork sabela.
- JON Touche..